

## » TELEGRAMA

Azaroaren 17tik 20ra bitartean, **Zinegin 2016 ekitaldiaren** kaietara euskal film berri andana proiektatuko da Lapurdiko Hazparne herrian. Ekitaldiak Haritz Barne zinema gelan eta Eihartzea Kultur Etxean izanen dira *STOP* Azaroaren 22an, asteazkenez, 19:00etan, Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxean **Hizkuntza gutxiuak ezagutzeko zikloaren** barnean, katalana izanen dute hizpide *Hitz adina mintzo* lemapean **STOP David Foster Wallace idazle** estatubatuarren *Sekula gehiago egingo ez dudan gauza ustez dibertigarri bat* lema hartuta mintzatuko dira Iruñeko Katakarak aretoan azaroaren 25ean, ostiralez, 19:30ean *STOP*

## » DISKOA

## Bidaiak



Joxi Ubeda



### Dual (1/2): Gordeka

TRISTTAN MOURGUY ETA HOREBA

I. O. 2016



I. O. (Iparrorratza) zigiluak argitaratu duen disko berri hau lan bikoitz baten lehen zatia da. "Egiatzko jostura lan bat", egileen hitzetan.

Doinuetan, kanpora egindako bidaiak suma daitezke, 70eko hamarkadako zenbait musika joeraren ukituak: euskalduna (Itoiz), anglosaxoia (King Crimson) edota brasildarra (Caetano Veloso). Folk-pop-rock-progresibo kutsuko kantutak dira. Giroak oro har leunak dira, baina pasarte batzuk indartsuak.

Hitzetan, berriz, barrura egindako bidaiak ageri dira, bidaiak intimoak, Tristtan Mourguyren sentimenduak, kezkek, go-goetak: "Ez dut izar bat izan nahi ilu-

nabarra goaitatu sentitzeko alai, goizetik mihia bustitzen dut gezurraz pixkanaka pozointzen nere hezurak (*Gordeka*), "Oraina iraganaren hatza, zure hesia dadila altxa lehen aldikotz hartzeko hatsa, lizuna bihurtzeko aratza" *Erakartzeko hitzak*), "Amets ederrenak haizu, nahiz ta harrapa-

gailu, presta zure paraisu, izan nahi dut kaiku-kaiku" (*Berritz azken aldi batez*).

Tristtan Mourguyren ahotsa eta gitarra akustikoa dira ardatz nagusiak. Nortasun handiko ahotsa dauka, beroa eta apala. Grabazio saioetan berarekin aritu diren musikariek lan handia egin dute kantuak janzten eta moldaketak egiten, Aymeric Gnimassouren (gitarra elektrikoa, *samplerrak* eta nahasketak) gidaritzapean: Flo Capelier (pianoa eta ahotsa), Arthur Capelier-Mourguy (biolina, alboka eta harmonika), Xabi Etxeberri (biolina), Cedric Lepine (bateria eta atabalak), Greg Juvin (baxua), Fabien Lapouge (klarinetea) eta Michael Barras (gitarra elektrika eta tronpeta). Eskarmentu handiko musikariak dira, zenbait taldetan aritutakoak: Euski, Begiz Begi, Zezenaren Taldea, Torii, Tikken Jah Fakoly, Bernard Lavilliers, Zapo Zain, Kadjo, Le Bestiare, Polo Fox, Mahamudra...

Tristtan Mourguy Donibane Lohizuneko da. 2014an *Trobador* bere lehen diskoa kaleratu zuen, eta disko hori aurkezteko 80 bat jendaurreko emanaldi egin zituen. Egunotan, *Dual (1/2): Gordeka* lan berria aurkezten ari da berarekin aritzen diren musikariek. Besteak beste, abenduaren 2an Durangon, abenduaren 11n Ziburun, eta urtarrilaren 3an Iruñean ariko dira. ■

*Tristtan Mourguy jendaurreko emanaldi batean, bere taldearekin.*